

ENPRESAK. Babcockek Iberdrola, Bizkaiko Badia eta Repsolekin kontratuak dauzka, baina baita nazioartean ere

Duro Felguerak atzera egin du eta ez du Babcock Wilcox erosiko


Euskal enpresak «bere industri proiektua» bultzatuko du, 180 milioiko eskariak dituela

Erredakzioa | BILBO

Asturiasko Duro Felguera enpresak atzera egin du, eta Babcock Wilcox euskal enpresa ez erostea erabaki du. Hala jakinarazi zion enpresa espainiarrak CNMVri (balio merkatuaren batzorde nazionala) atzo. Durok erabakia hartzeko arrazoirik eman ez arren, Asturiasko Gobernua iradoki du Durori «exijitutako baldintzek» eraman dutela operazioa porrotera.

Izan ere, SEPIko presidente Ignacio Ruiz Jarabok duela aste pare bat iragarri zuen ontzat emango zuela erosketa hori, «Babcock Wilcoxen pribatizazio baldintzak betetzekotan». Hau da, Alemaniako Babcock Borsigek hartutako konpromisoei Durok ere eutsiz gero.

Konpromiso horien artean, industri egitasmo bat, teknologi transferentzia, inbertsioak, merkatuetara jotzeko aukera eta 650 lanpostuei eustea azpi-



XOUSA SIMAL

Bazkide estrategikorik gabe ere, Babcock Wilcoxek berezko industri proiektua bultzatuko duela dio.

marra daitezke. Borsigek ezin izan zituen konpromisoak bete, ordainketak eten zituelako. Orain, argi geratu da baldintza horiek betetzea Duro Felguera- ren esku ere ez dagoela.

Hala, ere euskal enpresako iturriek jakinarazi dutenez, Bab-

cock Wilcox gaur egun «berezko industri proiektua» bultzatzeko prest dago. Hala, Babcockek 5 milioi euroko kontratua lortu berria du Iberdrolarekin, argindar zentral baterako galdarak egiteko. Horrenbestez, Sestaoko ekipo ondasun enpre-

sak guztira 180 milioi euroko eskari kartera dauka. Kontratu horietatik, garrantzitsuenak Bizkaiko Badiarekin eta Repsolekin dauzka, baina baita nazioartean ere, Babcockek eskari garrantzitsuak lortu baititu Indian, Iranen eta Txinan.

LABURREAN

HypoVereisbank Alemaniako bigarren bankuak 858 milioi euro galdu zituen 2002. urtean

HypoVereisbank Alemaniako bigarren banku handienak 858 milioi euro galdu zituen iaz, 2001ean 938 milioi irabazi eta gero. Finantza erakundeak emaitza horien arrazoiak balio merkatuen ahulaldia eta ordainketak epez kanpo dituzten maileguen gorakada izan direla azaldu zuen. HypoVereisbank Alemaniako bankuen artean, mailegu gehien dituen da eta bereziki nabaritu ditu krisiak eragindako enpresen kiebrak. Horregatik, kaudimengabezia hornitzeko kopurua %83 igo da, 3.797 milioi euroraino.

Aurreko urtearekin alderatuta, Oinarrik %56 handitu zituen enpresei emandako abalak

Iaz, «eta motelaldi ekonomikoa izan arren», Oinarri Elkarre- kiko Garantia Elkartek aurreko urtean baino %56 abal gehiago eman zituen. Oinarriren jardura bereziki enpresa txiki eta ertainei zuzenduta dago eta Euskal Autonomia Erki- degoan lan egiten du. Elkartearen arabera, datuok erakusten dute motelaldiaren eragin handiena enpresa ertain-handiek nabaritu dutela, txiki-ertainek baino. Bestalde, abendu amaieran 39.064 milioi eurora iritsi zen indarrean dauden abalen balioa. Berandutze-tasa berriz %0,1ekoa da.

Ezker Abertzaleak osoko zuzenketak aurkeztuko ditu Hegoaldeko lau aldundietan PFEZren erreformaren aurka

Ezker Abertzaleak osoko zuzenketak aurkeztuko ditu errenta zer- garen erreformaren aurka Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar na- gusietan eta Nafarroako Legebil- tzarrean. Eusebio Lasa mahaiki- deak, Xabier Olano eta Txema Pico hautetsiek esan dutenez, erreforma «atzerakoa eta antiso- ziala» da, eta «Madrilgo PPren erreformari jarraitzen dio». Azken urteotako erreforma «neolibera- len» ildo beretik, errenta handien eta kapital errenten onerako dela azpimarratu dute. Ondorioz, He- goaldean urtean 272 milioi euro gutxiago bilduko dituzte PFEZtik, hau da, %5 gutxiago. Bilketa ga- le- ra horrek gastu soziala murriztea ekarriko duela ohartarazi dute.

DIW institutuak ohartarazi du Alemaniako ekonomiak atzeraldian erortzeko arriskua duela

DIW Ikerketa Ekonomikoetarako Institutuak aurreikusi du Alemaniako ekonomia gelditu egingo dela lehen hiru hilabe- teetan eta ohartarazi du atzeraldian erortzeko arriskua dago- ela. «Dinamismo ekonomikorik eza atzeraldian amiltzeare- kin mehatxatzen ari da Alemania». DIWek gaineratu zuen gerra izanez gero, kanpo merkataritza are gehiago ahulduko dela. Institutuak Alemaniako 25.000 enpresabururi eginda- ko azken inkestak, gainera, erakutsi du inbertitzeko ez dago- ela asmorik. Halakorik ez da jazo azken 25 urteetan.

Ekonomisten Euskal Eskolak plan estrategikoaren aurrerapena aurkeztu dio Ibarretxeri

Ekonomisten Euskal Eskolak, bere gobernu batzordearen bidez, lantzen ari diren plan estrategikoaren aurrerapen bat aurkeztu zion atzo Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariari. Iñigo Ocariz, Ekonomisten Eus- kal Eskolako presidenteak planean garatu nahi diren gai na- gusiak azaldu zizkion Ibarretxeri: ekonomisten garapen pro- fesionalaren inguruko etengabeko hausnarketan sakontzea, enplegua, komunikazioa, organo espezializatuak eta, azke- nik, EAEko administrazioekin elkarlana

BURTSA. Bolumena bai, baina laugarren irabazi egunik ez zen izan

‘Mamma mia’: mamia!!

J. B. Andueza |

Burtsaren kotizazioen mamia, funtsa, enpresen irabaziak dira. Etorkizuneko balorazio au- rreikusia baino ez dira kotiza- zioak eta, *mamma mia!* mozkin berri onik ez da aspaldian. Atzo Alemaniako Volkswagen edo HypoVereisbank begiratu, edo Espainiako Moviles eta So-

gecable (54 milioiko galerak eta kotizazioaren %5,75eko jaitsie- ra), emaitza txarrak eta kezka ziren nagusi. Mamiak egin zuen kale. Giro horretan Dow Jones ere burumakur esnatu zen eta, gurean, jarraian izandako lau- garren irabazi eguna zatekeena, ez zen iritsi. Ibex-35ak 6.000ko maila ez du galdu, Repsol-YPFk (-%4,76) 13 eurokoa bai.

DATUA

Movilesek (-%1,94) galera erraldoiak aurkeztu zituen, 3.724 milioi euro, UMTS tek- nologiarekin eta Europan ha- sitako hedapenarekin zeriku- sia duten 5.000 milioiko hor- nidurak direla eta. Hala ere, ipotxetan irabazi aukera ar- gienak dituen da. Hori bai, atzo Terra %1,41 igo zen.

